

DONOSTIA NOISE

KREDITUAK / CRÉDITOS

TESTUAK / TEXTOS:

Jose Luis Espejo
Xabier Erkizia
Harkaitz Cano
15 danbor gabe plataforma /
plataforma 15 sin tambor
Ernesto Giménez Caballero
Euskal-erria aldizkaria (1883)
Tiquun

IRUDIAK / IMÁGENES:

(Ikus irudien zerrenda, 30. orr. /
consultar listado de imágenes, pág. 30)

SOINU GRABAKETAK /

GRABACIONES DE SONIDO:

Yannick Dauby
Xabier Erkizia
Mikel R. Nieto
Luca Rullo
Asier Gogortza
(ikus soinu grabaketen zerrenda, 31. orr. /
consultar listado de grabaciones pág. 31)

AUDIO EDIZIOA / EDICIÓN DE AUDIO:

Xabier Erkizia
Marcello Liberato

AUDIO MASTERING:

Marcello Liberato
Luca Rullo

DISEINUA ETA MAKETAZIOA /

DISEÑO Y MAQUETACIÓN:

Miguel Ayesa
Sonia Ciriza

AUDIOLAB elkartea www.audio-lab.org
SOINUMAPA.NET

Argitalpen hau 2013an ARTELEKU ekoizpen
artistikoaren zentruan (1987-2014) ospatu zen
izen bereko tailerraren emaitza da.
Inprimatze gastuetarako Donostiako
TABAKALERA Kultura Garaikidearen Nazioarteko
Zentroaren laguntza jaso du.

Esta publicación es resultado del taller de mismo
nombre celebrado durante 2013 en el centro de
producción artística ARTELEKU (1987-2014).
La presente publicación ha recibido el apoyo del
Centro Internacional de Cultura Contemporánea
de Donostia TABAKALERA para hacer frente a
los gastos de impresión.

ESKERRAK / AGRADECIMIENTOS:

Iñigo Telletxea
Xavier Balderas
Yannick Dauby
Arantxa Iturbe
Oier Etxeberria
Oier Iruretagoiena
Alex Mendizabal
Ane Rodriguez
Miriam Anitua
Nere Lujanbio
Natalia Barberia
Maitane Otaegi
Esther Larrañaga
Gure Gipuzkoa
Kutxateka

<https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/>



ISBN: 978-84-617-8348-9



2014an bete zituen ehun urte Luigi Russolo futuristak entzumenaren eta soinuaren kulturari idatzi garrantzitsuenetakoa jotzen den *Il arte dei rumori* (Zaraten artea) manifestuak. Ez gaitu harrituko XX. mende hasiera hartan, artistek hirietako joan-etorri zaratatsuari emandako garrantziaz ohartzeak, baina futuristek egindako hurbilketek gaur egun oraindik baliagarriak diren hiriaren deskribapenak eskaintzen dizkigute.

Baliteke, musika entzuteko beharra izatea Russolok belarria hiriari adi jartzeko arrazoia, baina musikatik eta artearen ikuspegietatik at, idatzi honek, bereziki zenbait pasartetan, hirietako zaratak entzutera gonbidatzen gaitu.

«Gurutza dezagun hiriburu modernoak, belarriak begiak baino adiago. Tutu metalikoei darien gas, aire edo ur jarioak entzungo ditugu, animaliak bailiran arnas eta bufa egiten duten motorren orroak, balbulen taupadak, pistoiak gorabeherak, zerra mekanikoei garriak, errailen gainean salto egiten duten tranbiak, zart egiten duten ustak, ikurrinen eta oihalen astinduak».

Birikak zituzten *motorrak*, hezurrezko *balbulak*, *pistoiak* zurdak bezala, *ustak* batuta gisara. Aurrerapenarengan fedea jarrita sortu ziren abangoardiako artearen izpiritu modernoak buruan sartuta, hiriguneetako produkzionismoaren soinuek liluratu zuten Russolo. Musikarenganako zaletasun haundia zuen familia batean jaio zen eta balbula guzti horiek orkestra bateko kideek joko balituzte bezala entzun zituen.

Bana al ditzakegu industriaren zaratak behar ginen soinuengandik? Bana al daiteke ferrokarrilaren kirrinka treneko bidaiariengandik? Nork bizi eta sufritzen ditu intelektual hauek gehien maite edo gorroto dituzten zaratak? Arteak ezin da bere testuingurutik banandu.



Hiriari kea badario, musikak ke hori arnastuko du. Olioak mugitzen badu, arteak olioak izerdituko du.

Russolok *Zaraten artea* idatzi zuenean, ezagunak ziren Europar zarataren aurkako mugimendu sozialak, eta ulertzekoa da Futuristak haien kontra egin izana. Nahiz eta artista hauek nagusiki aberaskumeak izan, euren klase sozialaren morala deusezteak izan zuten helburu. XX. mende hasieran zarataren aurkako lanean aurrekaria izan zen Theodor Lessingek «Lasaitasuna dotorezia da» idatzi zuenenean, futuristek gaitzesten zituzten baliok moralak defendatzen ari zen. Marinetti futuristak erakutsi zuen garbi: «marra klasikoa, oreka eta neurritasuna artetik desagertu dira, meditazioa, ordena eta isiltasuna bizitzatik desagertu diren bezala».

Zarata beti da besterena. Besterengan somatzen dugu zarata. Norberaren zaratarik ez dago. Inork ez du bere burua zaratatsu jotzen. Baina denok gara noizbait zarata-egile edo zarata-hartzaile. Trenera igotzerakoan edo gure leihotik entzuten dugunean, zerbait hartzen ari garenean edo lo egin nahi dugunean, pelikula bat ikusten ari garenean eta bizilagunarenak gogaitzen gaituenean. Gure hiriak eta bertako soinuak nondik pentsatu nahi ditugun erabakitzean dago gakoa: edo 'zuek' multzo batetik edo 'gu' bakarretik.

En 2014 se cumplían 100 años de la publicación de *El Arte de los ruidos*, escrito por el futurista Luigi Russolo y considerado fundacional en la cultura de la escucha y el arte sonoro. Concentrarse en el ajetreo propio de las ciudades era algo normal en el arte de principios del s. XX, pero el acercamiento de los futuristas describe la ciudad de una manera concreta, aún hoy patente en cierto modo.

Cuando Russolo tendió el oído a la ciudad, quizá estuviese demasiado pendiente de la música, pero más allá de ésta y del arte, lo que ahora nos interesa es que este texto, en algunos extractos, invita al oyente a escuchar los ruidos de las ciudades.

«Atravesemos una gran capital moderna, con las orejas más atentas que los ojos, y disfrutaremos distinguiendo los reflujos de agua, de aire o de gas en los tubos metálicos, el rugido de los motores que bufan y pulsan con una animalidad indiscutible, el palpar de las válvulas, el vaivén de los pistones, las estridencias de las sierras mecánicas, los saltos del tranvía sobre los raíles, el restallar de las fustas, el tremolar de los toldos y las banderas».

Motores como pulmones, válvulas como huesos, pistones como tendones, fustas como batutas. Russolo se fascina con los sonidos del produccionismo urbano, imbuido por el espí-

ritu moderno que hizo al Arte de Vanguardia creer en el progreso. Russolo pertenecía a una familia de músicos y seguramente pensaba en los trabajadores que hacían mover todas esas válvulas como intérpretes de una orquesta.

¿Puede separarse el ruido industrial de los obreros trabajando? ¿Puede separarse el rechinar de los raíles del tren de sus pasajeros? ¿Quiénes viven y sufren más los ruidos odiados y amados por estos intelectuales? Evidentemente el arte no puede separarse de su contexto. Si la ciudad exhala humo, su música lo inhala. Si se mueve por petróleo, su arte lo acabará sudando.

Cuando Russolo escribió *El arte de los ruidos*, ya existían ligas contra el ruido en Europa y es de suponer que los futuristas se oponían a ellas. Aunque estos artistas pertenecían a una clase acomodada, también pretendían destruir la moral de esa misma clase. Cuando el pionero de las luchas contra el ruido Theodor Lessing expone a principios del siglo XX «La tranquilidad (*quiet*) es distinción», está defendiendo los mismos valores morales a los que los futuristas se oponían cuando Marinetti expone en 1901 que «la línea clásica, el equilibrio y la sobriedad han desaparecido del arte como el orden, la meditación y el silencio han desaparecido de la vida».

El ruido siempre es ajeno. Siempre percibimos el ruido en los demás. El ruido de cada uno no existe. Nadie se considera a sí mismo ruidoso. Sin embargo, todos somos emisores y receptores del ruido en algún momento. Cuando subimos a un tren y cuando lo escuchamos desde nuestra ventana, cuando tomamos una copa y cuando queremos dormir, cuando vemos una película y cuando nos molesta la del vecino. Lo que cabe preguntarnos es desde dónde queremos pensar nuestra ciudad y su ruido: desde una serie de *vosotros* o desde un solo *nosotros*.



OFF-EKO MAITASUNA

Jaiki aurretik entzuten dut goizero mailuen zarata, metal biribil eta karratuek elkar jotzean sortzen dutena: sokek eutsirik datoz zenbait, baina derrepente erortzen dira gero, perkusio inharmonikoan, goitik behera datozen burdinazko txalaparta-xafla desorekatuak, kamioien atzerakako abisua ematen duten pi-pi ziztu konstanteekin batera. Beste aldazio bat, bai. Otoitz egiten dut nire buruari desmuntatzen ari direla sinestarazteko, ez dudala alboan beste zaharberritze lan bat gehiago jasan behar izango, baizik eta bat gutxiago. Bat gehiago izaten da eskuarki. Barrenak garbitu beharrean musua freskatzten duen hiri burges zaharkituaren soinu bandaren lehen konpasa da. Gero autobusen trafikoa dator, horizontal samarra, ia inoiz erreparatzen ez diogun itsasoko olatuen kadentzia ezabatzea helburu balu bezala: olatu mekanikoak dira hauek, motorren burrundarak eta putzuak gainezkatzen dituzten bizikleten flash hotsek noizbehinka etenak. Baina bat da sinbolikoki nagusi: eguerdiko hamabietan hiri erdian entzuten den sirena hotsa. Desagertu diren fabriketan lanik egiten ez duten langileei egindako deia? Ala hiria txikitzera egundo heldu ez den aire-erasoaren abisua? Atentzioa ematen dit, oraindik ere, hura entzundakoan jendeak lasai arraio bere zereginetan jarraitzen duela ikusteak, bere kruasandegien egian, bere buruaz hain ziur. Aire-eraso hori merezi ez dugulakoan, ala? Jada erasotuak izan ez bagina bezala: gaueko parranda neurriko eta europartuan, kasu, ate bikoitzeko taberna aseptikoen bestaldetik MTVko disko(de)kadentzia baino ez dator kalera intermitente. Pantaila lauetako kantu lauak LETRA LARRIZ emanak dira beti («Tabernako jabea aldatu zuten eta...»).

Xuxurlatzaile izan nahi lukeen hiri paristar-gura ez da batere halakoa. AHTren, superportuen eta errepedeen kontrako hainbeste harribots sortu dugun herrialde honetan, nolatan ez da inor kutsadura akustiko *kolonizatzaile eta zanpatzaileaz* arduratu? Goian bego tabernekin ildo editoriala zeukaten garaia!

Manifestazioen oihuak lausotu egin dira –ozenagoak dira kaioak–, estropada egunean soilik soma daiteke orain antzeko boz masarik; kirol demek irentsi dituzte arestiko protesta deiadarrak. Turismo-gidarien off-eko ahotsa nagusitu ote zaio herritarrenari? *Normalizazioa*, ados. Baina off-eko ahotsa ez da parte-hartze sakrosanturako muezinik onena izango ba, ezta?

Donostiako paradisu akustikoa? Ba ote? Irla-ira igerian zoazela urpean topatzen duzuna, agian. Irailetik aurrera, hori bai, motordun ontziek aldegin dutenean.

Harkaitz Cano



AMOR EN OFF

Percibo el martilleo metálico cada mañana antes de levantarme, el entrechocar de barras cilíndricas y cuadradas: algunas se deslizan mediante poleas para acabar cayendo con estruendo, una percusión inarmónica, una txalaparta descompuesta que cae verticalmente, acompañada por el pitido constante que advierte del retroceso de los camiones. Un andamio, efectivamente. Cruzo los dedos porque lo estén desmontando, rogando no tener que aguantar una obra de rehabilitación más, sino una menos. Siempre resulta ser una más. El primer compás de una ciudad burguesa y avejentada que se refresca la cara en vez de hacerse un buen lavado de estómago. Luego viene el fragor de los autobuses, bastante horizontal, la evocación mecánica de las olas y el rumor del mar al que damos la espalda, un oleaje artificial interrumpido por el petardeo de las motos y alguna noble bicicleta que atraviesa ocasionalmente los charcos con su espada silenciosa: *flash*. Pero hay un sonido que simbólicamente se impone. Es la sirena que suena al mediodía en todo el centro de la ciudad. ¿Con qué objeto? ¿Tratar de señalar el descanso a los no-trabajadores de fábricas inexistentes? ¿O avisarnos de que la ciudad está a punto de ser bombardeada por una flota aérea? Después de tantos años, aún me desconcierta que nadie se altere al escuchar esta sirena, que todos sigan inmersos en sus tareas y sus cruasanes calientes, sin zozobra y sin temor, tan seguros de sí mismos y de la tierra que pisan. Como si no hubiésemos sido ya objeto de ataque aéreo... Dígnense a escuchar, si no, en la eurojuerga reglamentada, las puertas dobles de los bares asépticos que dejan escapar intermitentemente la disco (de) cadencia de la MTV. Canciones planas en pan-

tallas planas, que siempre llegan a nuestros oídos EN MAYÚSCULAS. «Es que cambiaron el bar de dueños y...». Esta ciudad de pretensiones parisinas y susurrantes no lo es en absoluto... ¿Será posible que en un país donde nos movilizamos con fruición contra el TAV, los superpuertos –y las carreteras–, nadie se haya ocupado de esta contaminación acústica *colonizadora y aplastante*? Bendita la época en la que los bares tenían línea editorial.

Se han difuminado las manifestaciones y las proclamas –hay más rabia en los graznidos de las gaviotas–, solamente los días de regata puede uno percibir el ímpetu de una masa que abuchea. Los enfrentamientos deportivos son el vestigio de un pueblo que antaño fue contestatario y supo bramar. ¿Se habrá impuesto la voz en off de los guías turísticos a la de sus habitantes? Se llama *normalización*, lo asumo. Pero la «voz en off» del muecín turístico no parece la mejor fórmula para estimular la sacrosanta participación ciudadana.

¿Y el paraíso acústico donostiarra? ¿Existe tal lugar? Quizá el que se intuye bajo el agua cuando vas nadando hacia la isla, a partir de septiembre, cuando las lanchas motoras han dejado la bahía.

Harkaitz Cano



TRACK 001

Sirena baten hiru ikuspegi

Relojeria Internacional dendaren gaineko atikoan, Garibai eta Andia kaleen artean dagoen sirena da, zalantzarik gabe, Donostiako soinurik esanguratsuenetakoa. Haren jatorriaren eta arrazoiaren bertsio desberdinak dauden arren, garai batean Gipuzkoa plazan kokatua zegoen eta egunero eguerdia zela jakinarazten zuen kanoian topa dezakegu haren aurrekaria. Garaiko kroniken arabera, kanoi hau, eguzkiaren beroaz metxa bat berotzeko gai zen lupa bidezko mekanismoaz baliatzen zen lehertzeko. 1929an, gaur egun San Telmoko bildumako parte den kanoiak jotzeari utzi eta gero, El Pueblo Vasco egunkariak sirena ezarri zuen aipatutako atikoan, seguruenik bere langileei lan-txanda aldaketak jakinarazteko. Aldiberean, donostiarrek harizko erlojuak sinkronizatzeko baliatzen zuten sirena soinua. Geroztik sirena honek eguerdiko 12etan jotzen du egunero. Gezurra badirudi ere, donostiar askok ez daki euren hiriaren bihotzean tutuak egunero soinu egiten duenik ere. Grabaketa honek distantzia desberdinetatik jasotako sirenaren hiru ikuspegi eskaintzen ditu.



TRACK 001

Tres perspectivas de una sirena

Uno de los sonidos más característicos de Donostia es, sin duda, la sirena ubicada en el ático de la Relojería Internacional, en la esquina de la calle Garibai con la calle Andia. Aunque existen diversas versiones respecto a su procedencia y razón de ser, podemos encontrar una referencia en la curiosa historia del antiguo cañón que durante años marcó las doce del mediodía desde la Plaza Gipuzkoa. Según cuentan las crónicas de la época, este cañón contaba con un mecanismo basado en un sistema de lupa que utilizando la luz solar calentaba una mecha, disparaba el cañón y lo hacía sonar a la citada hora. Cuando este artefacto, actualmente parte de la colección del Museo San Telmo, dejó de funcionar en el año 1929 el diario El Pueblo Vasco instaló una sirena en el mencionado ático, probablemente con el objetivo de indicar los cambios de turno o descansos de sus trabajadores. Al mismo tiempo, esta sirena servía para sincronizar los relojes de cuerda de los donostiarras. Desde entonces, la sirena suena todos los días a las 12 del mediodía. Curiosamente muchos donostiarras ni siquiera son conscientes de que cada día suena una sirena anti-aérea en el mismo centro de la ciudad. Esta grabación ofrece tres perspectivas de la sirena, grabadas desde diferentes distancias.

TRACK 002

Olatuak Paseo Berrian

Naturako muturreko soinuen deskribapenak, bereziki olatuenak, ezagunak eta ohikoak dira Donostian. 1951ko abenduan, «maremoto» bezala ezagutu zen ekaitza deskribatu zuen bizilagun batek Urgulleko tontorretik: «Bat egin zuten ekaitzak, itsasgorak eta benetako hurakan batek. Gaztelutik zeruertzera begiratuz gero, olatu haundiak ikus zitezkeen, lehertuak eta harroak, maremotoetan bezala. Paseo Berriaren kontra jotzerakoan, hiria burrunbaka hasten zen. Haizeak olatuak altxatzen zituen Printzipe eta Miramar aldera zabalduz».

TRACK 002

Olas en el Paseo Nuevo

La descripción de los sonidos extremos de la naturaleza, especialmente sobre el oleaje, son comunes en el día a día de la ciudad de Donostia. En 1951 una persona describe su experiencia desde la cima de Urgull del famoso «maremoto» que asoló la ciudad en esa misma fecha: «Coincidió a la vez tormenta, mareas altas y un verdadero huracán. Desde el Castillo veías venir por el horizonte unas grandes olas, rotas pero levantadas, como si fuera un maremoto. Al chocar contra el Paseo Nuevo, retumbaba la ciudad, pero el viento levantaba las olas, que seguían hacia la zona del Príncipe y el Miramar».



TRACK 003
Santa Klara uhartea

TRACK 003
La isla de Santa Clara



TRACK 004

Danborradaren bi aldeak

Urtarrilaren 20tik 21erako gaua, San Sebastian egunaren hasiera adierazten duena, da Konstituzio plazako erlojuko ezkilak gau osoz jotzen diharduten urteko gau bakarra. Hiriko zaindariaren egunak, ez soilik ezkilek, urte osoan zehar zaratzat jotzen ditugun beste hainbat soinuk ere, bereziki danbor soinuek, indar haundiko durundak orduraz kanpo sortzeko baimena ematen du. Nork edo zerk erabakitzen du danborra zarata edo musika den?

TRACK 004

Las dos caras de la Tamborrada

La noche del 20 al 21 de enero, día de San Sebastián, es la única en la que las campanas del reloj de la Plaza de la Constitución suenan durante toda la noche. El día del patrón de la ciudad permite que muchos sonidos que durante el resto del año se consideran ruidos, incluidas las campanas, suenen a todo volumen y durante horarios extraordinarios. ¿Quién o qué decide si el estruendo de los tambores es ruido o música?



15 danborrik gabe plataformak 2012ko Donostiako eguneko bezperan argitaratutako oharra:

Agur'terdi,

Uste dut Gipuzkoar pertsona kopuru bat badela (naiz eta kopuru txikia izan) danborrada ezin entzun duenak. Denok ezagutzen dugu baten bat esaten duena: ezin dut jasan, ez dut atsegin, uff, ez dakit ba, kakalarria datorkit.

Zer da jasan ezin duten hori ordea? Agian juerga, ala kupelak, ala uniformeak... Auskalo, denetarik izango da. Baina ia guztiek dute musikarekin konturen bat. Sarriegiren Martxa edo Iriyarena edo Pasakallea ala Polka ez dute gorroto.

Perkusio hura ordea? Unisonoan, denok batera!

Unisonoan jotzen den perkusio horretan, Gipuzkoar hauek ezinegon sentitzen dute. Beldur antzeko batek inguratzen ditu afaltzen ari diren sardexkarekin edota makilekin mahaia edo danborra jo behar dutenean: Danborradaren erritmoan akats egingo al dut? huts egingo al dut erritmo unisonoa? Haurtzarotik hasita, milaka aldiz (ai ene!) entzuna du musika berbera baina, Tarero Tarero ondoren zenbat kolpe ziren, lau ala bost, ai ai ai! Unisonoan behar dute, denok batera, [...] ai ai ai.

Ezinegon hau fisikoa izatera heldu daiteke.

Guzti honen arrazoia, segur aski, Sebastian Santuaren heriotzean dago.

Sebastian Eroman martirizatu zuten Kristo ondorengo 288 urtean. Diokleziano enperadoreak bidalitako sikarioek fletxa eta geziz josi zuten. Baina Sebastian ez zen hil. Etxera eraman, zauriak garbitu eta bere onera bueltatu zen. Sendatu bezain pronto, enperadorearen jauregira abiatu zen berriz ere eta kristauen kontrako jazarpenak bertan behera uztea eskatu zion. Dioklezianok orduan agindua eman zuen: Sebastian erail! Kolpeka garbitu! Akabatu ezazue!

Eta honela hil zen San Sebastian. Kolpeka.

Danborradaren perkusioan, segur aski, kolpe horien oihartzuna sentitzen dugu. Horrenbeste zorabiatzen gaituen kolpe unisonoak. Garbitzaileak.

Horregatik, zentzu zibiko batek bultzatuta (Sebastianen izenak hainbatetan inspiratu duen zentzu zibikoa) danborrada ezeztatu dadin eskatzen dugu. 15 urtetan, gutxienez, ez dadila danborradarik jo. Ez banda, ez txaranga, ez danbor, ez kupel.

15 danbor gabe plataforma

Petición de la plataforma 15 sin tambor, publicada en vísperas del día de San Sebastián en 2012:

Estimado director,

Creo que existe un número, quizás pequeño, de personas en Gipuzkoa que detestan la tamborrada. Todos conocemos a alguien que dice, uff, yo no la aguanto, no me gusta, la fiesta, no sé.

¿Qué es lo que no aguantan? Pues quizás el jolgorio, los trajes, los barriles... Habrá de todo. Pero casi todos ellos tienen alguna cuenta pendiente con la música. No es que les disguste la Marcha o la Iriyarena o Polka o Pasacalle que sea de Sarriegui.

¿Pero esa percusión? ¡Al unísono!

En esa percusión al unísono, este número pequeño de personas guipuzcoanas encuentran un desasosiego. Un miedo se apodera de la persona que no sabe si cuando va a tocar el tambor, aunque sea con el tenedor de la cena, va a fallar. Ha escuchado la música miles de veces desde su infancia y a pesar de ello teme entrar con las baquetas cuando no debería. Debería de entrar en estricto unísono.

Este malestar puede llegar a ser físico.

El motivo de todo esto, quizás, esté en que el Santo Sebastiano, que fue martirizado en Roma el 20 de enero del año 288, no murió por las muchas flechas que le lanzaron los sicarios de Diocleciano. Sebastián logró sobrevivir y en cuanto se curó salió de casa y llegó de nuevo ante el emperador y le pidió que cesaran las persecuciones contra los cristianos. Diocleciano entonces mandó matarlo flagelado.

Así murió San Sebastián, a golpes.

Esos golpes son probablemente el eco que sentimos en esa percusión al unísono de la tamborrada que tanto mareo nos produce.

Por eso, un grupo de personas, llamados por un sentido cívico (tan ligado en la historia a Sebastián), pedimos que tocar la tamborrada sea desautorizada durante 15 años, por lo menos. Ni bandas, ni txarangas, ni barriles ni tambores.

Es una cuestión de conciencia.

¡Imagina un mundo sin percusión!

plataforma 15 sin tambor

TRACK 005


Martuteneko kartzela

Gipuzkoako probintziako presondegi bakarra da. 150 presorentzako lekua du. 1948an, frankismoaren presondegi nagusia zen Karabantxel (Madrid) altxatu eta lau urtetara eraiki zuten, Ondarretako presondegia ordezkatzeari zuzen helburu. Eraiki zituztenerako eredu hau zaharkitua zegoen arren, bi presondegiek antzeko plano panoptikoa zuten oinarri. Frankismoaren garai latzenetan horrelako arkitekturak erabiltzeak esanahi estetiko eta filosofiko nabarmenak ditu, azken hamarkadetan eraistek, eta ondorioz memoria historikoa lurperatzeko saiakerak dituen bezala. 2006an Donostiako Udalak zonalde hau eraistea agindu zuen, Donostiako etxebizitza kopurua 100.000ra igoko duen eraikuntza berriz betetzeko. Proiektu honek zona berdeak aurreikusten ditu, eta jakina, hiriko periferia hontako lurraren garestitze nabarmena.

TRACK 005

Cárcel de Martutene

Esta cárcel es el único centro penitenciario situado en la provincia de Guipúzcoa. Posee una capacidad para 150 reclusos. Esta cárcel sustituyó a la cárcel de Ondarreta y fue construida en 1948, década en la que también se construye la gran cárcel del franquismo en Carabanchel (Madrid). Ambas cárceles tenían un plano panóptico similar, entonces anticuado. El uso de esta arquitectura en la etapa más dura de la represión franquista está llena de significados estéticos y filosóficos, de la misma manera que lo está el hecho de que sean destruidos sistemáticamente, enterrando con ellos un episodio decisivo de la memoria histórica del territorio. En 2006 se anunció la demolición de esta zona para la construcción de viviendas con el objeto de ampliar el parque residencial de Donostia a 100.000. Este plan proponía la introducción de zonas verdes y la consecuente subida del precio del suelo de esta zona periférica de la ciudad.



TRACK 006

Kale musikariak

Donostian kutsadura akustikoagatik jasotzen diren kexuen ia %13a kale musikariengatik da. Ze eragin du eskenatokiak soinu bat musika edo zarata bezala ulertzeko orduan? Zer da soinu bakoitzari balio ekonomikoa ematen diona? Eta soinu horiek egiteak suposatzen duen lanari? Zergatik zigortzen da gitarrajole bat eskabadora baten gidaria baino lehen? Zarata beti da besterena.

TRACK 006

Músicos callejeros

Aproximadamente el 13% de las quejas en Donostia sobre contaminación acústica vienen de los músicos callejeros. ¿Cómo influye el escenario en la valoración de un sonido como música o ruido? ¿Qué es exactamente lo que da valor económico a determinados sonidos? ¿Y al trabajo que implica producirlos? ¿Por qué está más penalizado el trabajo de un músico tocando la guitarra que el del operador de una excavadora? El ruido siempre es de los demás.



TRACK 007
Isiltzeko deia

Loiolako koartel militarra. Gaueko 11ak. Gaueko atsedendian, koarteleko militar guztiei isiltasunean egotera gonbidatzen dien Isil deia deitzen den tronpeta jotzea entzun daiteke. Tronpeta bakarrarekin interpretatzen den soinu zuko maniobra, estamentu honen berezko instrukzio eta ordutegi militarren parte da.

TRACK 007
Toque de silencio

Cuartel Militar de Loiola. 23:00 horas. Momento en el que suena el llamado Toque Silencio que llama a todos los militares del cuartel a permanecer en silencio durante su descanso nocturno. Esta maniobra sonora, interpretada con una sola trompeta, pertenece a la lista de instrucciones y horarios militares propio de este estamento.



TRACK 008

Zarataren deia

Itxarkundia batailoiko metrailadoreen kapitain Alejandro Lizaso Eizmendik gehitu zion «Irrintzi bat entzun da mendi tontorrean, goazen gudari danok ikurriñan atzean» estrofa. Ekitaldi publikoetan abesten denean, estrofa honetan norbaitek egin ohi du irrintzi. Gerra zibila hasita, 1936ko abuztuan abestu zuen lehen aldiz, gerora Arana Goiri batailoia osatuko zuen Bilboko Kortabarria konpainiak.

«Ohitu lerroan edo batailoian doazten soldaduak, danborraren erritmora joaten. Hortarako, eskuineko hankarekin hasi behar da, tropa guztiak aldi berean hanka bera altxa dezan».

L. de Montgomery, «La milice française», 1636ko edizioa, Michael Foucault Vigilar y Castigar. Siglo XXI: Buenos Aires, 2001.


TRACK 008

Toque de ruido

La estrofa «Irrintzi bat entzun da mendi tontorrean, goazen gudari danok ikurriñan atzean» (cuando oímos un irrintzi en la cumbre del monte, vamos todos los soldados detrás de la ikurriña) fue añadida por Alejandro Lizaso Eizmendi, capitán de ametralladoras del Batallón Itxarkundia. Habitualmente, cuando se entona en público en diversos actos, se acompaña esta estrofa con un irrintzi. La primera utilización de la pieza se realizó en agosto de 1936, comenzada ya la Guerra Civil, y la hizo la compañía Kortabarria de Bilbao, que luego conformaría, junto a otras, el batallón Arana Goiri.

«Acostumbrar a los soldados, que marchan en fila o en batallón, a marchar a la cadencia del tambor. Y para hacerlo, hay que comenzar por el pie derecho, a fin de que toda la tropa se encuentre levantando un mismo pie al mismo tiempo».

L. de Montgomery, «La milice française», éd. de 1636, en Michael Foucault Vigilar y Castigar. Siglo XXI: Buenos Aires, 2001.



TRACK 009

Suak

Non asmatu edo egin dituzten alde batera utzita, ia su artifizial guztiek ezaugarri jakin bat dute: zarata egiten dute. Pirotekniak, zineak bezala, berez argia eta soinua erabiltzen baditu ere, entzuten denak arreta gutxiago jasotzen du, nahiz gogaikarriagoa izan. Horren adibide gisara, Aste nagusiko piroteknia lehiaketaren 50. urteurrenean suak musikaz lagundu zituzten. Zergatik ote?

Kontatu ohi da, erdi aroan, suak oraindik kolore bakarrekoak zirenean, filmeen antzeko iraupena eta narrazioak izaten zituztela. Gaur egun, badirudi ikustearekin nahikoa dugula. Baina dizdirarekin batera, oihartzuna dute ezaugarri nagusi. Aste Nagusian, ikuskizuna hasten denean, suak hiriko kale guztiak zeharkatzen dituzte. Ez ikustea norberaren esku dago; ez entzutea, aldiz, ezinezkoa da.

TRACK 009

Fuegos

Hay algo que casi todos los fuegos artificiales tienen en común aunque se hayan diseñado o fabricado más o menos cerca: hacen bastante ruido. Aunque la pirotecnia sea sonido y luz, casi como el cine, lo que suena recibe menos atención, pero es más molesto. Cuando lo merecía, la conmemoración del 50º concurso de pirotecnia de la Semana Grande de Donostia-San Sebastian, los fuegos se acompañaron de música. ¿Por qué sería?

Se cuenta que en la edad media y la antigüedad los fuegos, entonces monocromos, tenían una narración y una duración similar a la de las películas. Parece que estamos acostumbrados sólo a mirar los fuegos. Sin embargo, junto con el brillo, una característica fundamental de este espectáculo es la resonancia. En la Semana Grande, cuando los fuegos se disparan desde el interior de la ciudad, todas las calles son recorridas por la presencia de los fuegos. Se puede decidir no verlos, pero si se vive en la ciudad, es difícil decidir no oírlos.



TRACK 010

Kontxako bozgorailuak

- Hain erakargarri egiten al zaizu gure herria?
Zuretzako hain esker txarrekoa izan den herria?
- Askok dibertitzen naiz, uste baino gehiago
-erantzun zuen Picassok, erantzun sakonei
ihes eginez eta inguruko gauza txikiei begira-
da alaia eskainiz- [...] Harridura sortu didan
beste gauza bat hondartzan galtzen diren
umeen kopurua da, eta Kontxako bozgorailuak
haien berri emateko egiten dituen deiak.
Hainbeste ume galdu, euren amen edo haur-
tzainen erakustaldiak ez ote diren ere pentsatu
izan dut. Eta gero, irratilariak egiten dituen
umeen deskribapenak zoragarriak dira. Zenbat
azalpen gorpuzkeraz eta jantziez! Nolako
azterketak egingo ote dizkie ume horiei!

Ernesto Giménez Caballero

TRACK 010

Altavoces de la Kontxa

- ¿Tan atrayente encuentra nuestra tierra, esta
tierra tan ingrata para usted?
- Me divierto mucho, mucho más de lo que
yo creí –respondió Picasso rehuendo una
respuesta a fondo y extendiendo sobre el por-
menor local su mirada gozosa- [...] Otra cosa
que también me ha chocado es esa cantidad
de niños perdidos en la playa, y el reclamo que
hace de ellos el altavoz de la Concha. He lle-
gado a pensar si tantos niños perdidos serían
casos de exhibición de sus mamás o de sus
niñeras. Y luego, es formidable la descripción
que de estos niños hace el radioparlante.
¡Que señas corporales y de vestido improvisa
en el momento! ¡A qué reconocimientos estu-
pendos deberá someter a esos niños!

Ernesto Giménez Caballero



TRACK 011

Autobidea

Zein da gailuaren kontzeptuari berari buruzko zalantza guztiak ezabatzen dituen gailu-eredua? Nere iritziz, gailu edo dispositibo perfektua autobidea da. Autobidean zirkulazio maila gorenak kontrol maila gorenarekin bat egiten du. Ezer ez da mugitzen, aldiberean libre eta matrikulazio fitxategi zorrotzetan zehaztasun haundiz identifikatua, sailkatua eta banatua izan gabe. Sare gisara antolatua, bere hornidura puntuekin, bere polizia propioarekin, bere espazio autonomo, neutro, huts eta abstraktuekin, autobide sistema lurraldearen errepresentazioa da, heterotopiaren eta heterotopia zibernetikoaren irudikapena, paisaiaren bidez lerrotan hutsaldua.


Tiqqun

TRACK 011

Autopista

¿Cuál es el dispositivo perfecto, el dispositivo-modelo que hace imposible cualquier malentendido sobre el concepto mismo de dispositivo? El dispositivo perfecto es, a mi juicio, la autopista. En ella un máximo de circulación coincide con un máximo de control. Nada se mueve sin que sea a la vez indudablemente libre y aparezca estrictamente identificado, clasificado e individualizado en el exhaustivo fichero de las matriculaciones. Organizado a manera de red, dotado de sus propios puntos de abastecimiento, de su propia policía, de sus espacios autónomos, neutros, vacíos y abstractos, el sistema de autopistas es representación del territorio mismo, como banalizado por líneas a través del paisaje, de una heterotopía, de la heterotopía cibernética.

Tiqqun



TRACK 012

Motorrak lo daudenean

Badira motorrengatik maitasun zibernetikoa sentitzen duten pertsonak. Haiei bizitza kontzienteki eskaintzen dietenak. Autoen motorraren txapa beroaren gainean poseak egiten dituzten modeloz betetako aldizkariak irakurtzen dituzte, abiadurarekin, bibrazioarekin eta beraien autoen orro mekanikoekin eszitatzen dira. Eta euren autoak lotara eramaten dituzte. Parkinga da autoen etxea.

Parkingak, ordea, ez dira gure etxeak bezalakoak. Pribatuak eta publikoak dira aldiberean. Gris koloreko pintura kirrikaduna izan ohi dute zoruan, metalezko barrak aldeetan eta hainbat soinutxo muzak berezia osatzen duten tutu luzeko aireztapen sistemak. Parkinga suspensearen lekua da.

TRACK 012

Cuando los motores duermen

Hay ciertas personas que sienten un amor cibernético por los motores, dedicándole su vida de manera más o menos consciente. Estas personas, a veces, hojean revistas con modelos recauchutadas que posan en contacto con la chapa caliente del motor de los coches y sienten una excitación con la velocidad, la vibración y el rugido mecánico de sus vehículos. Estas personas suelen llevar a sus coches a *dormir*. La casa de los coches es el parking, privado, o público.

El parking, sin embargo, no es como nuestras casas. Es privado y público al mismo tiempo. Tiene el suelo pintado de una chirriante pintura gris, está amueblado con barras de metal y cubierto de conductos de ventilación que llenan este espacio de un muzak de tintineos, soplidos y chasquidos. El parking es el espacio del suspense.



TRACK 013

Futbola eta akusmatika

Anoeta futbol zelaiak 1993ko uztailaren 29an ireki zituen bere armailak, 1913tik Egia auzoan kokatuta hiriko futbol partiduak hartzten zituen Atotxako futbol zelaiaren ordezkot. Bigarren zelai honen eraikuntzak, bere instalazioak berritzeaz gain, estadioa hirigunetik ateratzea zuen helburu. Hiri askotan gertatzen da. Hiriguneak haunditzen doazen heinean, eraikuntza erraldoi hauek kanpora ateratzen dituzte, gehienetan eraikin bertikalak altxatzerakoan garestitutako den lurzorua salneurriarengatik. Zenbat etxe eta bulego kabitzen dira 10.000 metro luzeko zelai batean?

Futbol zelaiak ziklo zehatzetan egiten dute soinu. Ahots laino bat sarreran, jarraitzaileen umorearen eta jokalarien jokoen arabera aldatzen diren kantuak... Baina bereziki, aurrelari mugimenduen, atezainen geldialdien, epaileen erabakien eta jakina, golen arabera dantzatzen diren soinu olatuak dira nagusi. Partidu baten emaitza hiriko edozein zokotatik jakin liteke jokalaria ikusi gabe, zelaiaren sartu gabe eta garrantziaren arabera, baita arreta gehiegirik jarri gabe ere. Futbola ikuskizun akusmatikoa da. Berdin dio nora eramaten dituzten futbol zelaiak.



TRACK 013

Fútbol y acústica

El Estadio de Anoeta fue inaugurado el 29 de julio de 1993, reemplazando el Campo de Fútbol Municipal de Atocha en Egia que se inauguró en 1913. La construcción de este segundo campo no sólo buscaba renovar sus instalaciones, sino sacar el estadio del centro urbano. Este es un efecto recurrente en muchas ciudades. Cuando el centro de éstas crece, absorbiendo lo que eran sus afueras, los enormes edificios que son los estadios se vuelven a llevar lejos. A veces la razón es el precio del suelo que ocupan, que se multiplicará cuantiosamente en una edificación vertical. ¿Cuántas casas u oficinas caben en 10.000 metros cuadrados de césped?

El estadio suena con un ciclo vital muy determinado. Una bruma de voces en la entrada. Una serie de cánticos que varían dependiendo del ánimo de los hinchas y del partido que están haciendo los jugadores. Pero sobre todo, un oleaje de interjecciones con cada avance de los delanteros, con cada parada del portero, con cada decisión arbitral y sobre todo con cada gol. Uno puede saber el resultado de un partido sin mirarlo, sin entrar en el campo y dependiendo de la importancia que se le haya dado, sin prestarle atención desde cualquier punto de la ciudad en que se esté jugando. El fútbol se ha convertido en un espectáculo acusmático. Da igual dónde se lleven los estadios.

TRACK 014

Hiriaren dardaria

Fisikan, uhin malgu orenen zabalkundea suposatzen duen fenomeno oro, izan entzungarri edo ez, soinua da. Nahiz eta entzuten ditugun zarata gehienak aire bidez transmititzen diren, soinua egoera likidoan edo solidoan dagoen materiaren bidez ere zabaltu daiteke. Gure ingurunean, soinuak zorutik bidaia dezake, ondotik beste zeozerengan sortutako bibrazioaren bidez gure belarrietan agertzen den arte. Gure gorputzean, hezurren edo hortzen bidez bidaia dezake soinuak, belarriko hezurtxoaren bidez egiten duen bezala, azkenik gure burmuinak seinale gisara prozesatzen duen arte. Soinuaren ezaugarri hau nahitaezkoa da zarataren eta bibrazioen arteko legedia ulertzeko. Legeak 1hz-tik 80hz-rako soinuak onartzen ditu bibrazio gisara.

TRACK 014

Ciudad vibrante

El sonido, en física, es cualquier fenómeno que involucre la propagación en forma de ondas elásticas, audibles o no. Aunque la mayoría de ruidos que percibimos y pensamos se transmiten por el aire, un sonido puede pasar también por materia en estado líquido o sólido. En el espacio que nos rodea un sonido puede viajar por el suelo, que al vibrar se hace audible para nuestros oídos. En nuestro cuerpo, puede viajar por nuestros huesos y nuestros dientes, como lo hace por los huesecillos del oído, hasta que lo procesamos como señal. Este aspecto del sonido es fundamental en las legislaciones sobre ruido y vibraciones. La ley contempla aquellas vibraciones entre 1 y 80 Hz.



TRACK 015


Haizeen orrazia

Haizeen orrazia (1973) eskultura ezagunaren ondoan kokatzen den soinu instalazioa. Gaur egun «soinu paisaigintza» bezala har deza-kegun eskuhartze eskultorikoa Luis de Pablo musika konposatzailearekin elkarlanean asmatu zuen Chillidak. Olatuen indarra erabiliz hots harmonizatuak egin beharko lituzketen zuloek ordea, ez dituzte melodiak egiten.

TRACK 015

Peine de los vientos

Instalación sonora ubicada en la plaza contigua a la famosa escultura *El Peine de los Vientos* (1973) de Eduardo Chillida. Esta intervención escultórica que actualmente podríamos considerar «paisajismo sonoro» fue realizada en colaboración con el compositor Luis de Pablo. Sin embargo, estos agujeros que en teoría deberían de sonar armonizados no producen precisamente melodías.



TRACK 016

Parkeak eta trafikoa

Cristina Enea parkea, jatorriz, Mandasko Du-keak garai batez bizitoki izan zuen jauregiaren lursaila zen. 1926an parke publiko bihurtu eta hamarkada batzuk geroago eraikin nagusia Ingurumen Baliabideen etxe bihurtu zuten. Parkeko zuhaitz eta landare exotikoen ugari-tasunaz gain, hegazti biztanleria zabala dago, itxura batean parkearen soinu-paisaia idilikoa osatuz. Parkeak berak gordetzen du paisaiaren eta ondorioz soinu paisaiaren ideia. Errealita-tea, ordea, desberdina da. Autobidera jotzen duen mendian egin zituzten zuhaitz mozketek parkea zarataz bete zuten. Parkearen gainkal-detik argi entzuten dira trenak, autoak edo inguruko eraikinetako lanak.

TRACK 016

Parques y tráfico

El parque de Cristina Enea fue en su día la finca del Palacio del Duque de Mandas, antigua residencia del mismo. En 1926 pasó a ser un parque público y el edificio principal se convirtió en Centro de Recursos Medioambien-tales. A la variedad de árboles y plantas exóti-cas se suma una población de aves que haría pensar en un paisaje sonoro idílico para este parque. La idea misma de parque, contiene implícita una idea de paisaje, y por tanto, de paisaje sonoro. Sin embargo la tala de árboles en la zona más cercana a la autopista hizo que el espacio del parque se llenase de ruido. Desde lo alto de alguna de las laderas del parque, se escuchan con claridad los sonidos del tren, los coches e incluso de obras contiguas.



TRACK 017
Alde zaharra

TRACK 017
Parte vieja



TRACK 018

Isiltasuna Abuztuak 31n

TRACK 018

Silencio en 31 de agosto

Desde la tarde del día 30 se anunció la lúgubre función con el clamoreo triste y continuo de las nuevas campanas de la misma Iglesia de Santa María y de las de la otra Parroquia de San Vicente que, llorando con sus ayes sonoros a los difuntos, excitaron la tristeza y mil funestos recuerdos en los ánimos de los desgraciados habitantes que les han sobrevivido. [...]

Continuó desde el amanecer el clamoreo de las campanas y al oír sus sentidos ecos y lastimero llanto, acudió arrebatadamente todo el Pueblo, llevado de la devoción y fervor, vestido de luto, y suspendiendo el trabajo de manos, los oficios de talleres y todo estruendo del tráfico, á oír muy de mañana las misas rezadas [...].

El comercio, la industria, las artes, todo estuvo parado con un profundo y religioso silencio y una Santa inacción. Nadie podía presentarse en las calles, sin enternecerse con los tristes recuerdos que se renovaban y la imaginación y memoria en aquel día de desolación y dolor, exaltadas todavía más con la vista de los horrorosos escombros en que ha venido a parar una Ciudad que atraía y encantaba por su hermosura y pintoresca perspectiva a los forasteros que concurrían a ella. En las plazas y cruceros de la desmantelada San Sebastian, ya no se oían las voces de alegría, y regocijo, la voz del espanto, y la voz de la esposa; solo se oían el lastimoso ¡ah! la lúgubre endecha, y lamentación.

Aniversario memorable: San Sebastián el 31 de agosto de 1815 (1883).

Euskal-Erria: revista bascongada San Sebastián T. 9 (2o sem. 1883), p. 161-166 (KM)178876. Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegiaren jatorrizkoa (Gipuzkoako Foru Aldundia).

TRACK 019


Igeldoko funikularra

Turista baten testigantza: *Ze zaila Igeldo mendira funikularrean igotzeko esperientzia deskribatzea: igo eta ia 90 graduako aldapa gozatzen hasten zara, egurrak kriskiti kraskata eta edozein momentutan kablea hautsi eta mendian behera amilduko zaren beldurra. Bidenabar, funikularrean eta Igeldon grabatzeko baimen bereziak behar dira.*

TRACK 019

Funicular de Igeldo

Comentario de un turista: *Lo que no se puede describir es la subida al Monte Igeldo en funicular. Es montar y disfrutar de esa pendiente de casi 90º, con ese ruido de madera crujiendo y ese terror de que en cualquier momento se va a soltar el cable y te vas a estrellar.* Por cierto, se precisa un permiso especial para realizar grabaciones en el funicular.



TRACK 020


Hiri-altzarien musika

Altzari musika Erik Satie konposatzaile eta musikariak 1917an asmatutako terminoa da. Kontzeptu honek entzuten dugunaren azpitik entzun beharreko musika baten beharraren erreibindikazioa du oinarri. Satiek entzulearen arretarik eskatzen ez duen, alegia, altzari baten funtzioa betetzen duen musika baten beharra aldarrikatu zuen. Mendea geroago, altzari-musika zeharo txertatua dago gure eguneroko bizitzan, izan irratiz, izan merkatalguneetan eta grabaketa honek Satie zuzen zebilela baieztatu baino ez du egiten. Bere «Gymnopédie n°1» pieza ezaguna entzun daiteke Gros auzoko Catalunya plazako lurrazpiko parkingeko bozgorailuetatik.

TRACK 020

Música de mobiliario urbano

Música de mobiliario es un término acuñado por el compositor y músico francés Erik Satie en 1917. La idea nace de la necesidad, según Satie, de crear una música para ser escuchada de fondo; una música que sin atraer la atención cumpliera su función, como si se tratara de un mueble más. Curiosamente casi un siglo más tarde, la música de mobiliario es una constante en nuestra vida diaria, desde la radio hasta los establecimientos comerciales. Esta grabación demuestra que Satie no andaba muy mal encaminado. Su famosa pieza «Gymnopédie n°1» suena desde el sistema de sonido del parking subterráneo de la plaza Catalunya del barrio de Gros.



IRUDIEN ZERRENDA LISTADO DE IMÁGENES

3. orrialdea / página

VEDETTE-AK KURSAALEKO
TERRAZAN (1930)
VEDETTES EN LA TERRAZA
DEL KURSAAL (1930)
Foto Car. Ricardo Martín *

4. orrialdea / página

AÑORGA KO PAREAN
FERROCARRILES VASCONGADOS
KONPAINIAREN TRENAREN
ISTRIPUA (1936)
ACCIDENTE DE UN TREN DE LOS
FERROCARRILES VASCONGADOS
A LA ALTURA DE AÑORGA (1936)
Marín. Pascual Marín *

5. orrialdea / página

PARIS-MADRIL SUD-EXPRES TRENA
ERRAILETIK IRTEN ZENEOA (1924)
DESCARRILAMIENTO DEL TREN
SUD-EXPRES PARIS-MADRID (1924)
Marín. Pascual Marín *

6. orrialdea / página

DONOSTIA - ERRET ETXETXOA
(1907)
SAN SEBASTIÁN - CASETA REAL.
(1907)
Dr. Tenkler co. *

8. orrialdea / página

PAULINO UZKUDUN ATOTXAKO
FUTBOL ZELAIEAN (1925)
PAULINO UZCUDUN EN EL CAMPO
DE FUTBOL DE ATOTXA (1925)
Foto Car. Ricardo Martín *

9. orrialdea / página

ITSAS EKAITZA DONOSTIAN (1951)
TEMPORAL DE MAR EN SAN
SEBASTIAN (1951)
Marín. Pascual Marín *

10. orrialdea / página

ITSAS EKAITZA DONOSTIAN (1951)
TEMPORAL DE MAR EN SAN
SEBASTIAN (1951)
Eskutitz postala / Carta postal

11. orrialdea / página

DONOSTIAKO DANBORRADA (1928)
TAMBORRADA DE SAN SEBASTIAN
(1928)
Marín. Pascual Marín *

14. orrialdea / página

MARTUTENEO PRESONDEGIAREN
LEHEN HARRIA JARTZEKO
EKITALDIA (1944)
ACTO DE COLOCACION DE LA
PRIMERA PIEDRA DE LA CARCEL
DE MARTUTENE (1944)
Foto Car. Vicente Martín *

15. orrialdea / página

TXANTXILLO SANMIEL JAIETAN
(2000)
TXANTXILLO EN LAS FIESTAS
DE SAN MIGUEL (2000)
Antton Jauregi **

16. orrialdea / página

MANIFESTAZIO KATOLIKOA
DONOSTIAN (1910)
SAN SEBASTIÁN - MANIFESTACIÓN
CATÓLICA (1910)
Polikarpo Elozegi **

17. orrialdea / página

DONOSTIAKO SETIOA (XIX. mendea)
EL ASEDIO DE SAN SEBASTIÁN
(s. XIX)
T. Bachelor ***

18. orrialdea / página

SU ARTIFIZIALEN LEIHAKETA
KONTXAKO BADIEN (1967)
CONCURSO DE FUEGOS
ARTIFICIALES EN LA BAHÍA
DE LA CONCHA (1967)
Marín. Paco Marí *

19. orrialdea / página

BAINULARI TALDEA DONOSTIAN
(19??)
SAN SEBASTIÁN - GRUPO
DE BAÑISTAS (19??)
Ed. Mayor Hermanos **

20 orrialdea / página

AUTOZALEA BERE KARRERA
AUTOAN (1929)
AUTOMOVILISTA EN SU COCHES
DE CARRERAS (1929)
Foto Car. Ricardo Martín *

20-21. orrialdea / página

AUTOAK "EL TXOFRE" ZEZEN
PLAZAREN KANPOALDEAN (1924)
COCHES EN EL EXTERIOR
DE LA PLAZA DE TOROS
DE "EL TXOFRE" (1924)
Marín. Pascual Marín *

22. orrialdea / página

SOKATIRA TXAPELKETA ATOTXAKO
FUTBOL ZELAIA (1932)
COMPETICION DE SOKATIRA EN
EL CAMPO DE FUTBOL DE ATOTXA
(1932)
Marín. Pascual Marín *

23. orrialdea / página

DONOSTIA - MARIA KRISTINA ZUBIA
(19??)
SAN SEBASTIÁN - PUENTE
DE MARIA CRISTINA (19??)
LL. **

24. orrialdea / página

KRISTINA-ENEA PARKEA
"GLADYS-ENEA" (19??)
SAN SEBASTIÁN - IGLESIA DE STA
MARIA Y CALLE DEL 31 DE AGOSTO
(19??)
Fotpia Castañeira y Álvarez **

26. orrialdea / página

DONOSTIA - SANTA MARIA ELIZA
ETA ABUZTUAK 31 KALEA (19??)
SAN SEBASTIÁN - IGLESIA DE STA
MARIA Y CALLE DEL 31 DE AGOSTO
(19??)
Fotpia Castañeira y Álvarez **

28. orrialdea / página 28 (1)

DONOSTIA - IGELDO MENDIKO
FUNIKULARRA (19??)
SAN SEBASTIÁN - FUNICULAR
DEL MONTE IGUELDO (19??)
GG. **

28. orrialdea / página (2)

DONOSTIA - IGELDO MENDIKO
PUBLIZITATEA (19??)
SAN SEBASTIÁN - PUBLICIDAD
MONTE IGUELDO (19??)
L. Roisin **

29. orrialdea / página

IRRATIA ENTZUTEN KURSAALAREN
TERRAZAN (1924)
ESCUCHANDO LA RADIO EN
LA TERRAZA DEL KURSAAL (1924)
Foto Car. Ricardo Martín *

* Kutxa Fototekaren kortesiaz /

Cortesía de Kutxa Fototeka

** Gure Gipuzkoaren kortesiaz /

Cortesía de Gure Gipuzkoa

*** San Telmo Museoaen kortesiaz /

Cortesía de Museo San Telmo

SOINUEN ZERRENDA LISTADO DE SONIDOS

CD hau osatzen duten soinu artxibo guztiak bat banaka entzungai daude SOINUMAPA.NET webgunean

Todos los sonidos utilizados en esta edición se pueden consultar individualmente en SOINUMAPA.NET

TRACK 1: Yannick Dauby. 2008

http://www.soinumapa.net/marker/donostia_sirena_kalea/
http://www.soinumapa.net/marker/donostia_sirena_hurbil/

TRACK 2: Xabier Erkizia. 2012

<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-itsasbizia/>

TRACK 3: Yannick Dauby. 2008

<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-staklara/>
http://www.kalerne.net/audio/phonographies/donostia/4.donostia_isla.mp3

TRACK 4: Xabier Erkizia. 2013

<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-donostia-egunaren-hasiera/>

Xabier Erkizia. 2008

http://www.soinumapa.net/marker/donostia-danborrada_batera/

TRACK 5: Luca Rullo. 2013

<http://www.soinumapa.net/marker/carcel-de-martutene-i-donostia/>
<http://www.soinumapa.net/marker/martutene-prison/>

TRACK 6: Luca Rullo. 2013

http://www.soinumapa.net/marker/loiola_musico-en-el-tren/
<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-musika-egian/>

Xabier Erkizia. 2013

<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-kale-musikaria/>

TRACK 7: Mikel R. Nieto. 2013

<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-isiltasunaren-deia/>

TRACK 8: Asier Gogortza. 2010

<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-alde-hemendik/>

TRACK 9: Luca Rullo. 2013

<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-suartifizialak/>

TRACK 10: Luca Rullo. 2013

http://www.soinumapa.net/marker/donostia_megafonia_kontxa/

TRACK 11: Mikel R. Nieto. 2013

<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-aparkalekua>
<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-igogailu-setatia/>

TRACK 13: Xabier Erkizia. 2013

<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-golak-anoetan/>

TRACK 14: Xabier Erkizia. 2010

http://www.soinumapa.net/marker/donostia-agirre_zubia

TRACK 15: Yannick Dauby. 2008

<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-chillida>
http://www.kalerne.net/audio/phonographies/donostia/2.donostia_breath.mp3

TRACK 16: Luca Rullo. 2013

<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-kristinaenea/>

Xabier Erkizia. 2010

http://www.soinumapa.net/marker/donostia_paumak/

TRACK 17: Xabier Erkizia. 2012

<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-euripean/>

TRACK 18: Mikel R. Nieto. 2013

<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-kaleko-argiak-itzali-dira/>

TRACK 19: Yannick Dauby. 2008

<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-funikularra/>

TRACK 20: Mikel R. Nieto. 2013

<http://www.soinumapa.net/marker/donostia-altzari-musika-parkinean/>

